

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Arriola Garate

*Mendaro,
Gipuzkoa
(1917-2011)*

Aurkibidea



Biografia



1917an jaio zen Mendaroko "Txalkorkua" etxean. Bi anaia ziren. Mutikotan eliz mutil lanak egiten zituen. Azpilgoeta auzoko eskolan ibili zen 14 urtera arte. Gero, 15 urterekin Mendaroko irin-fabrikan hasi zen lanean eta bertan egin zuen bizi osoa. Fabrikako nagusia zen Linazasororen inguruko kontu ugari kontatzen ditu. 19 urterekin Gerra Zibilera joateko deitu zioten. Hasieran bulegoan egon zen lanean eta gero Burgosen txofer lanetarako aukeratu zuten. Handik aurrera Espainian zehar soldaduak kamioian hartuta ibili zen. 4 urte egin zituen soldadu. Gerra Zibileko hainbat bizipen kontatzen ditu. Elkarrizketetan bere alaba Rosa Marik eta ilobek ere parte hartu zuten.

Zintak

MEN-014

- **Proiektua:** Mendaroko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Data:** 2010-11-22
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

MEN-015

- **Proiektua:** Mendaroko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Goikoetxea, Haritz
- **Data:** 2010-11-29
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. "Gordo"ren bikotea pilotan

- **Erref:** MEN-014/001
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:05

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Gaztetan meza bukatu ostean frontoira joaten ziren pilotan jokatzera: bera eta "Gordo" Enrike eta Antonioren aurka. Berari ez zioten uzten sarea 2tik ateratzen. Eskua belztuta izaten zuten orduan. Frontoia non zegoen. Hasieran frontoi librea zen, baina gero uralitaz estali zuten. Taberna ere bazuen.

2. Batzokia; Monzonen eta "Altzeta"ren mitinak Mendaron

- **Erref:** MEN-014/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:08:50

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Garagartza auzoan, "Muxionekua"n batzokia egon zen. Gogoan du Monzonen eta Carlos Linazasoro "Altzeta"ren mitinak entzun zituela Mendaron.

3. Abertzale eta errepublikanoen lehia Trinitateetan

- **Erref:** MEN-014/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:09:55. **Bukatu:** 00:12:05

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Gerra aurrean, abertzale eta errepublikanoen arteko liskarrik handiena Trinitateetan izaten omen zen, jaietarako jartzen zen pinuaren puntan bakoitzak bere bandera jarri nahi zuelako. Behin bi zuhaitz jarri omen zituzten. Herrian ez zegoen karlistarik.

4. Garagartzako ikasle aurreratuenak Azpilgoetara irakasle

- **Erref:** MEN-014/008
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:13:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Garai batean bi eskola zeuden Mendaron: neska gehienak Garagartza auzora joaten ziren eta Azpilgoetako eskolan neskak eta mutilak batera. Batzuetan 70 ume inguru elkartzen ziren maisu batekin. Eskolan aurreratuenak zirenak Azpilgoetara bidaltzen zituzten nesken irakasle gisa. Alejandro Ruiz irakasle plentziarra.

5. Euliak abarketen hariekin lotuta

- **Erref:** MEN-014/009
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:14:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Eskolan, abarketako zinten hariak atera eta euliei jartzen zizkieten hanketan lotuta. Euliak irakaslearen mahaira joaten ziren gero hegan.

6. Irakaslearen zigorra

- **Erref:** MEN-014/011
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:16:44

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Irakaslea eskolatik irteten zenean fabrika bateko bulegora joaten zen lanera. Behin bera zigortuta utzi zuen gelan, berandura arte hantxe egon beharko zuela mehatxatuz. Berak leihotik ihes egingo zuela esan zion. Hori esateagatik makilakadak jaso omen zituen.</p>

7. Irin fabrikak ordaintzen zuen maisuaren soldata

- **Erref:** MEN-014/012
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:16:44. **Bukatu:** 00:19:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Maisua gogorra zen, baina denborarekin makaltzen joan omen zen. Lekzioa nola hartzen zien. Trenez etortzen zen maistrarekin batera. Maistrarekin neskak ibiltzen ziren gehienbat, baina baita mutilen batzuk ere, maisuaren eskolak ordaindu egin behar izaten ziren eta. Eskola irin fabrikako Linazasorok sortua zen gehiena, eta hark ordaintzen zion soldata maisuari.

8. "Txalkorra", morroi lanean hasitakoa

- **Erref:** MEN-014/014
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:23:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Jose Maria Linazasoro "Txalkorra" Arteta baserrian egon zen morroi gaztetan, eta handik Sasiolara joan zen, fraideengana, morroi. Behin fraideek barre egin

ziotelako dena utzi eta alde egin zuen. Juanen aitonarekin ibili zen gerra karlistan eta baita meategian lanean ere, Somorrostron.

9. "Txalkorra"-ren inguruko kontuak

- **Erref:** MEN-014/015
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:26:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Berak tratu handia izan zuen "Txalkorra"-rekin. Ganadua zeukaten etxe azpian. Gorreria handia zuen eta behin albaitariak esaten zuena interpretatzeko deitu omen zion. Beste behin Somorrostron meategian bere aitonarekin lanean zebilela gertatutako pasadizoa kontatu zion.

10. "Txalkorra" Madrilen aberastu

- **Erref:** MEN-014/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:28:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Madrilen bitxi-denda zuen mutilzahar batek, "Txalkorra" mutil argia zela ikusita, bere dendara eraman zuen lanera. Han ondo irabazten zuen eta jabeak berari utzi zizkion ondasunak. "Txalkorra" herrira etortzen hasi zen. Jauregi bat egin zuen Mendaron eta baita beste etxe bat ere. Irin fabrika ere berak jarri zuen martxan.

11. Herriko errotak ere erosi zituen "Txalkorra"-k

- **Erref:** MEN-014/018
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:30:45

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Herriko errotak ere "Txalkorra"-k erosi zituen, erreka ura desbideratu eta bere turbinari indarra eman ahal izateko. gizon argia zen.

12. Madrilen aberastu eta dirua Mendarora

- **Erref:** MEN-014/021
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:37:04

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

"Txalkorra" gerra karlista amaitutakoan joan zen Madrilera bitxi-dendara lanera. Jabea mutilzaharra zen eta ondorengorik ez zuenez, berari utzi zizkion

ondasun guztiak. Aberastu zenean, herrira etorri eta hainbat eraikin erostean gain, eskolak ere bultzatu zituen. Asko egin zuen herriaren alde.

13. "Txalkorra" ez zen oso erlijiosoa

- **Erref:** MEN-014/022
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:37:04. **Bukatu:** 00:38:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

"Txalkorra" ez zen fraide zalea. Behin limosna eske etorri zitzaion gizon bat santuarekin eta bota egin zuen etxetik.

14. 'Txirristaka' bertsopaper banatzailea

- **Erref:** MEN-014/025
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:41:20. **Bukatu:** 00:43:05

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Herriko beste pertsonaia ezagun bat: Txirristaka. Elgoibarko feriakoan ikusi zuen berak, kalean, kaxa baten gainera igota, bertsoak kantatu eta paperak saltzen. Txakur handi batean saltzen zituen. Haren bertso bat abesten du.</p>

15. Urte askoan meza-laguntzaile

- **Erref:** MEN-014/028
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:48:12

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

5 urte ingururekin meza-mutil lanak egiten zituen. Txikia zen oraindik eta apaizari liburua emateko ere lanak izaten omen zituen. "Introito" guztiak omen zekizkien. Don Migel eta don Enrike abadeen laguntzaile ibili zen. Bi abadeon ibilbidea.

16. Meza-laguntzaileak "introito"-ak erantzun behar

- **Erref:** MEN-014/030
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:48:20. **Bukatu:** 00:50:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Meza-laguntzailearen lana "introito"-etan abadeari erantzutea zen. Latinez oraindik gogoan dituen "introito" eta erantzunak errezitatzen ditu. Meza osoa latinez izaten zen. Meza egunero 7etan izaten zen eta udan igandetan 6etan.

17. Ura edan zuelako ezin Jaunik hartu

- **Erref:** MEN-014/032
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:50:58. **Bukatu:** 00:53:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Mezara baraurik joan behar izaten ziren. Goizean kanpaia entzundakoan jaiki eta elizara abiatzen zen meza laguntzera. Behin bidean ura edan zuen eta ezin izan zuen Jauna hartu. Meza ostean, etxera joan, gosalduta eta eskolara.

18. Abadeen soldata

- **Erref:** MEN-014/035
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:54:15. **Bukatu:** 00:56:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Garagartzan bedeinkazioak aterik ate egiten ziren, Azpilgoetan ez. Baserrietan soroak ere bedeinkatzen ziren eta trukean oilaskoren bat jasotzen zuen abadeak. Errepublikara garaian abadeei soldata kendu zitzaien eta, medikuen antzera, etxeetan kuota bat pasatzen zuten.

19. Baserrietakoak gutxiago eskolara

- **Erref:** MEN-014/039
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:59:28. **Bukatu:** 01:00:48

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Errepublikara garaian ere eskola gaztelaniaz ematen zuten, Alejandro Ruiz irakasleak ez zekien euskaraz eta. Bera 14 urtera arte ibili zen eskolan, baina baserrietakoak askoz gutxiago joaten ziren.

20. Eskolako materiala

- **Erref:** MEN-014/041
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:01:15. **Bukatu:** 01:03:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Maisuak Juani eskatzen zizkion konpasak. Eskolan entziklopedia erabiltzen

zuten, ikasgai guztiak biltzen zituen liburua. Berak izeba bat zuen Bilbon eta kartaz hari eskatzen zizkion behar zituenak.</p>

21. "Botones" lanari uko egin behar

- **Erref:** MEN-014/042
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:03:35. **Bukatu:** 01:05:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

14 urterekin irin-fabrikan hasi zen lanean. Ama operatuta izan zuen Donostiako klinika frantses batean eta bertan "botones" moduan lan egitea eskaini zioten., baina ordurako bera lanean hasita zegoen.

22. Irin-fabrikako kontuak

- **Erref:** MEN-014/044
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:05:36. **Bukatu:** 01:08:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debararreneko lantegiak

Laburpena:

Irin fabrikari lan mota guztiak egin omen zituen. Hasieran "pintxe" bezala hasi zen eta gero kamioiarekin ibili zen. Espainia osoko lehenengo Mercedes diesela irin-fabrikara ekarri omen zuten. Trena fabrikaraino etortzen zen eta bagoietako garia biltegira husten zuten. Garia normalean Nafarroatik ekartzen zen. Irina Bizkaia ingurura banatzen zen gehien, kamioietan.

23. Don Jose abadea nola ezagutu zuen

- **Erref:** MEN-014/045
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:08:20. **Bukatu:** 01:09:38

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Don Jose abadea Zarautzen ezagutu zuen, hango baserritarren gariak jasotzera joan zen batean. Don Jose orduan baserriren bateko maiordomo gisa zegoen.

24. Arraten jokotutako apustua

- **Erref:** MEN-014/046
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:09:38. **Bukatu:** 01:11:30

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Eibarko Arratera gariak pisatzera joan zenetako batean, Kantabria tabernan, baserritarrek apustua jokatu zuten San Isidro egunerako: idiekin Arrateko harriari zeinek buelta gehiago eman. Apustu egunean uztarria erdibitu egin zitzairen.

25. Irin fabrikako makinak eta lan-prozesua

- **Erref:** MEN-014/047
- **Iraupena:** 0:05:30. **Hasi:** 01:11:30. **Bukatu:** 01:17:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Garia fabrikara ekartzen zutenetik aurrerako prozesua. Gari-klase desberdinak daude. Gariak eho ahal izateko lehenbizi busti egin behar omen dira. Irin fabrikako makinak inguruko azalpenak. Zahia eta birrina. Semola izaten zen garbiena, ordurako soberakin guztiak kentzen zitzaizkion gariari. Errotak. Galbahe lana egiten zuten makinak.

26. Telefono zentraliten funtzionamendua

- **Erref:** MEN-014/050
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:19:35. **Bukatu:** 01:22:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Telefono zentralitek nola funtzionatzen zuten. Zentralitetan jendearentzat lokutorioa egoten zen. Listinak ere bazeuden. Irin-fabrikako zenbakia "1"-a zen, baina 3-4 lekutarako deitzen zuten bertara. Deia norentzat zen jakiteko tinbre kopuruarekin jokatzeko zuten.

27. Herriko eraikin zaharrenak

- **Erref:** MEN-014/051
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:22:20. **Bukatu:** 01:25:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Juan jaio zenerako irin-fabrika martxan zegoen. Gaur egun bizi diren etxea eraikitzen ezagutu zuen. Herrian geratzen diren eraikin zaharrenak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com